



2026ko Uztailaren 4a
XVII.SAN MIGUEL RALLYSPRINTA

XVII. SAN MIGUEL RALLYSPRINTA

2026ko uztailaren 4a

EUSKADIKO RALLYSPRINT TXAPELKETA

Barne Araudia



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

AURKIBIDEA

PROGRAMA:

PROGRAMA-ORDUTEGIA	3. orria
ABISUEN TAULA OFIZIALA	3. orria
IDAZKARITZA IRAUNKORRA	4. orria
1. Artikulua- ANTOLAKUNTZA	4. Orria

MODALITATE OROKORRAK:

2. Artikulua- PUNTUAGARRITASUNA	6. orria
3. Artikulua - DESKRIBAPENA	6. orria
4. Artikulua- ONARTUTAKO IBILGAILUAK	7. orria
5. Artikulua- ASEGURUAK	7. orria
6. Artikulua- IZEN-EMATEA	8. orria
7. Artikulua- IZEN-EMATE ESKUBIDEAK - ESKAERAK	8. orria
8. Artikulua- PUBLIZITATEA	9. orria
9. Artikulua- EGIAZTAPEN ADMINISTRATIBOAK ETA TEKNIKOAK	9. Orria

XEDAPEN OSAGARRIAK:

10. Artikulua- ERREKONozIMENDUAK	11. orria
11. Artikulua- PARKE ITXIA	12. orria
12. Artikulua- ASISTENTZIAK	12. orria
13. Artikulua- GPS	13.orria
14. Artikulua- SARIAK ETA GARAIKURRAK	13. orria

I ERANSKINA

PARTE HARTZAILEEN SEGURTASUNA	14.orria
--------------------------------------	-----------------

II ERANSKINA

ERLOJUPEKO IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA	15.orria
---	-----------------

III ERANSKINA

GPSa - FUNTZIONAMENDUA	16. orria
-------------------------------	------------------

IV ERANSKINA

PLANOAK. EGIAZTAPENAK, PARKEAK, ASISTENTZIA	17. orria
--	------------------

V ERANSKINA

IBILBIDEA-ORDUTEGIAK	19. orria
-----------------------------	------------------

BARNE ARAUDIA

PROGRAMA - ORDUTEGIA

DATA	ORDUA	EKINTZA	TOKIA
2026-06-15	12:00	Araudiaren publikazioa	EME Eskuderia www.eaf-fva.net
2026-06-15	12:00	Izen-emate irekiera	
2026-06-26	20:00	Izen-emate itxiera	
2026-06-27	09:00-19:00	Errekonozimenduak	Erlojupeko Ibilbidea
2026-06-28	09:00-14:00		
2026-07-01	22:00	Parte-hartza ileen zerrenda publikatzea	www.eaf-fva.net

2026-07-04	Egiaztapen administratiboak 08:00etatik 10:30 tara		Opela Okindegia Atxondoa zeharkalea 4 Markina-Xemein
	Egiaztapen Teknikoak 08:30etatik 11:00etara ANTOLATZAILEAK ADIERAZITAKO ORDUTEGIAREN ARABERA		Udal Arraindegia Artibai kalea Makina-Xemein
	11:15	Ibilgailuen aurkezpena Parke Itxian	Markina-Xemein
	11:15	Irteera baimendutako ibilgailuen zerrendaren aurkezpena	
	11:30	Briefing-a	
	11:50	Parke itxitik irteera	
	13:00	EI1 lehen parte hartzailearen irteera	
	18:00	Lehen parte hartzailea parke itxira iristea	Erlojupeko Ibilbidea (Elgoibar)
	18:30	Emaitzak publikatzea	Altzibar kalea (Etxebarria)
	19:00	Sari eta garaikur banaketa	Etxebarriako Udaletxea
	Ondoren	Parke itxiaren irekiera	

OHAR OFIZIALEN TAULA

- Ekainaren 8tik uztailearen 3ra, Idazkaritza Iraunkorrean.
- Uztailearen 4tik, rallysprintaren amaiera arte bulego iraunkorrean.

BARNE ARAUDIA

RALLYSPRINTEKO IDAZKARITZA IRAUNKORRA

Ekainak 8tik uztailaren 4ra, 18:00-21:00ak bitartean:

Antolatzailea: Eme Automobilismo Kirol Kluba
Helbidea: Zuazola Kalea, 5
Herria: Azkoitia (Gipuzkoa), 20720
Telefonoa: 680 901 856 (Arantzazu)
Email: emakumeautomobilismoan@gmail.com
Web: www.eaf.fva.net

RALLYSPRINTEKO BULEGO IRAUKORRA

RallysprinTEKO Bulego Iraunkorra, uztailaren 4tik aurrera, probaren programa-ordutegiei egokituta, honako tokian izango da:

Kokapena: Etxebarriako Udaletxea
Helbidea: Peñanekua Plaza, 1
Herria: Etxebarria (Bizkaia), 48277
Telefonoa: 680901856 (Arantzazu)

Ordutegi-programako ekintzaren bat salbuetsita, Bulego Iraukorraren ordutegia honakoa izango da:

Uztailak 4, larunbata: 08:00tatik 22:00tara.

Parte hartzaileek Idazkaritza Iraukorrarekin kontaktuan egon behar dute, baita probaren webarekin ere, puntualki informazio buletinak publikatu daitezkeelako, eta hauen berri izateko betebeharra dutelako.

1. Artikulua ANTOLAKUNTZA

Baliozko araudietatik, lehentasunaren arabera ondoko hauek erabiliko dira

- a) Euskadiko Txapelketen, Kopa, Sari eta Challengerren preskripzio amankomunak.
- b) Euskadiko Rallysprint Txapelketako Kirol Araudia.
- c) Euskadiko Rallye Txapelketako Kirol Araudia, aplikagarria den arloan.
- d) Euskadiko Rallye Txapelketako Araudi Teknikoa.
- e) Leyend Kirol araudia.
- f) Leyend araudi Teknikoa.
- g) Probaren Barne Araudia.

C.D.I.a izango da lehentasunez aplikatuko dena, prozedimendu, erreklamazio eta apelazio egoeretan.

1.1 Definizioa:

Eme automovilismo Kirol Klubak XVIII. San Miguel Rallysprinta antolatu du, lasterketa 2026ko uztailaren 4an burutuko delarik.

EAF-FVA bisatu zbkia:

Data:

1.2 Antolakuntza batzordea:

Lehendakaria: Oihane Uranga

Batzordekideak: Nagore Iraolagoitia

Maite Lekuona

1.3 Rallysprinteko Ofizialak:

KIROL KOMISARIOAK:

Lehendakaria: D. Lic. CD- -EUS

D. Lic. CD- -EUS

D. Lic. CD- -EUS

LASTERKETAKO ZUZENDARIA:

D. Lic. DC- -EUS

LASTERKETAKO IDAZKARIA:

D. Lic. SC- -EUS

EAF-FVako SEGURTASUN ORDEZKARIA:

D. Lic. DC- -EUS

KOMISARIO TEKNIKOAK:

Arduraduna: D. Lic. OC- -EUS

D. Lic. OC- -EUS

D. Lic. OC - -EUS

KRONOMETRAJE ARDURADUNA:

D. Lic. OB- - EUS

2. Artikulua PUNTUAGARRITASUNA

XVIII.San Miguel Rallysprinta ondorengo Txapelketa eta Sarietarako puntuagarria da:

Euskal Herriko Rallysprint Pilotu Txapelketa.
Rallysprinteko Formula Libreko Euskadiko garaikurra.
Rallysprinteko Kopilotuen Euskal garaikurra.
Rallysprinteko Pilotuen Euskal Junior garaikurra.
Rallysprinteko Kopilotuen Euskal Junior garaikurra.
H1 Euskal Garaikur Historikoa.

Bizkaiko Rallysprint Pilotuen Txapelketa.
Rallysprinteko Formula Libreko Bizkaiko garaikurra.
Rallysprinteko Kopilotuen Bizkaiko garaikurra.
Rallysprinteko pilotuen Bizkaiko Junior garaikurra.
Rallysprinteko Kopilotuen Bizkaiko Junior garaikurra.
Bizkaiko Garaikur Historikoak H1

Gipuzkoako Rallysprint Txapelketa
Gipuzkoako Rallysprinteko Junior Mailako Pilotuen garaikurra.
Gipuzkoako Rallysprinteko Junior Mailako Kopilotuen garaikurra.
Gipuzkoako Rallysprinteko Formula Libreko garaikurra.

Legend. Modalitate honek ez du lehiakortasun izaera, beraz, ez du Txapelketa edota Sarietako puntuagarritasunik izango.

3. Artikulua. DESKRIBAPENA

- 3.1 Ibilbidearen distantzia osoa: 94,65Km
3.2. E.I. Kopurua: 3
3.3. E.I.en distantzia osoa: 32,07Km
3.4. Etapa kopurua: 1
3.5. A ibilbidea (EI 1, EI 2, EI 3) **Elgoibar- Etxebarria*** deskribapena araudiaren II. Eranskinean.



BARNE ARAUDIA

4. Artikulua ONARTUTAKO IBILGAILUAK

4.1. Asfalto gaineko Rallyen Araudi Teknikoan deskribatutako ibilgailuak, Rallysprintean parte hartu eta puntuagarri izateko onartuak izango dira:

2026ko EUSKADIKO RALLYE TXAPELKETAKO MAILAK			
MAILA	Gr.N	Gr.A - Gr.R – R(FIA) – Ra	F2000 - A2 – E2 - Historikoak
1	2.000arte	1.600 arte –R1A-R1B	F1 (1.150arte) - A2 (1.4arte)
2	2.000tik 2.500era	2.000 arte – R2B-Ra3B	F2(1.150dik gora 1.400arte) - A2 (1.4tik 1.6ra)
3	2.500dik gora	2.000tik 2.500era- R2C-Ra3C-Ra5	
4		2.500dik 2.800era - Kit Car 1.600-s1600 – R3C – S1600 – R3T – Ra3D-Ra4B	F3 (1.4tik gora 1.6arte) – A2 (1.4tik 2.0arteko kopak)
5	2.500dik gora (4x4)	2.800dik gora – Ra4C – GrB	F4 (1.6tik gora 2.0arte) – A2 (2.0tik 3.0arteko kopak)- E2
6	S2000 – N Plus	Kit Car 2.000,WRC,WRC 2, GT, S2000/WRC, R4, R5, N1, N5, Ra1 – Ra2	F5 (2.0tik gora 2.5 arte) - A2 (3.000tik gorako kopak)
9			H (Historikoa – Pre 81)
10	FÓRMULA LIBRE RALLYSPRINTA		

4.2. Legend

- Grupo 2 y 5ak (erreplikak zein originalak). Garaiko autoaren prestakuntza eta dekorazio berbera.
- Grupo 3 y 4ak (originalak, erreplikak eta Stradaleak).
- Grupo Bak (originalak, erreplikak eta Stradaleak).
- Grupo Ak edo Kit Car ofizial-ohiak edo ofizial-ohien erreplikak, 2000 urtearen aurretik parte hartu bazuten. Garaiko autoaren prestakuntza eta dekorazio berbera.
- 2000 urtearen aurretik parte hartu zuten WRC autoak.
- Antolakuntzaren irizpideen baitan, bestelako autoak, betiere EAF-FV Aren komisioko teknikoaren onepenez, irizpideak bateratzeko helburuz, autoaren aurre-albo irudia bidali beharko delarik.

4.2.1. Egiaztapenean, autoa egoera perfektuan aurkeztu beharko da, martxan, bai arlo mekanikoari dagokionez, bai eta karrozeriari dagokionez ere.

5. Artikulua ASEGURUAK

5.1. Aseguruaren inguruko datu guztiak. EAF-FV Aren 2026ko Txapelketa, Kopa eta Sarien amankomuneko preskripzioen VII. atalean ageri dira.

6. Artikulua IZEN-EMATEAK

6.1. Izen emate eskaera egiteko data eta egun muga:

Izen emateko eskaeren muga 2026ko ekainaren 26an, 20:00etan amaituko da.

Eskaera Euskadiko Automobilismo Federazioaren web orriaren bitartez soilik burutuko da www.eaf-fva.net orrian, XVIII. San Miguel Rallysprinta sailaren barruan, online inskripzioak atalean.

“Izen-ematea egiterakoan, ibilgailuaren izendapenari dagokion atala behar bezala bete beharko da, eta ibilgailuaren izendapen komertzial osoa adierazi beharko da. Formula Libre kategorian, gainera, motorraren zilindrada ere adierazi beharko da. Adibidez, BMW 328i E30, 2.8 motorduna bada. Ez da onartuko BMW E30 soilik adieraztea.”

6.2. Parte hartzaile kopuru maximoa 70ean finkatuko da. Zifra hori gaindituko balitz, antolakuntzaren irizpide propioen arabera burutuko da aukeraketa.

6.3. Antolakuntza komiteak eskubidea izango du, izen emate bati uko egiteko, C.D.Iaren 3.14 artikuluan onartutakoari lotuta.

Antolakuntza Komiteak izen emate bati uko egitean, izen emate epea itxi osteko egunetan jakinarazi beharko du parte hartzailea, gutxienez ere, lasterketa baino 5 egun lehenago. Uko egite hau argudiatua izan beharko da.

7. Artikulua. IZEN-EMATE ESKUBIDEAK - ESKAERAK

7.1. Izen-emate eskubideak:

ABIADURA

7.1.1. Antolakuntzak proposatutako publizitatearekin: **160€**

7.1.2. Antolakuntzak proposatutako publizitatea gabe: **320€**

LEGEND

7.1.3 Antolakuntzak proposatutako publizitatearekin: **100€**

7.1.4 Antolakuntzak proposatutako publizitaterik gabe: **200€**

Izen-emate prozesua amaitu baino lehen soilik ordaindu ahal izango dira izen-emate eskubideak online ordainketa pasabidearen bidez, bai txartel bidez, bai bizum bidez.

Junior sarietan puntuatu nahi duten eta baldintzak betetzen dituzten euskal lizentzidun kirolariek izena emateko orria bete eta bidali beharko dute, nahitaez, federacion@eaf-fva.net (e)ra, izen-emate data itxi baino lehen.

7.2. Izen emate eskaerak antolakuntzaren eskuetan egon beharko dira, behar bezala beteta eta ordainketak BURUTUTA.

7.3. Pilotuaren edo taldearen betebeharra izango da, izen ematearen itxiera epearen aurretik antolakuntzaren esku jartzea, e-mail bidez edo pertsonalki, izen emate eskaeraren kopia behar bezala beteta eta sinatuta, baita dokumentuen kopiak eta inskripzio eskubideen ordainketaren agirira ere.

7.4. Baldintza hau betetzen ez duen izen emate eskaerari, arrazoirik eman gabe uko egin diezaioke antolakuntzak.

7.5. Inskripzio eskubideak osotasunean itzuliak izango dira ondoko kasuetan:

- a) Onartuak izan ez diren izen emate eskaerak.
- b) Lasterketa aurrera ateratzen ez den kasuan.

“Izen-ematea itxita dagoenean izen-ematea bertan behera uzten bada, antolatzaileak izen-emate eskubideak itzuli ahal izango ditu, sortutako gastuak (adibidez, dortsalak, etab.) kenduta; kasu horretan, itzuliko den zenbatekoa izen-ematearen %85 izango da.”

7.6 Izena eman duen parte hartzaile edo taldea, lasterketara ez bada agertzen, kirol komisarioen erabakipean zigortua izango da, beti ere, ezinbesteko kasuetan izan ezik edo 24 ordu aurretiaz idatziz abisatu ezean.

8. Artikulua. PUBLIZITATEA

8.1. Antolakuntzaren publizitatea onartzen duten parte hartzaileek, honako espazioak gorde beharko dituzte:



9. Artikulua EGIAPTAPEN ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOAK

9.1. Derrigorrezkoa izango da egiaztapen administratiboetan ondoko dokumentu originalak aurkeztea:

- a) Ibilgailuaren dokumentazioa eta IATA indarrean.
- b) Lehiakidearen lizentzia.
- c) Parte hartzaileen lizentziak.
- d) Pilotuaren gidabaimena.

Parte hartuko duten auto guztiek eduki, aurkeztu eta bete beharko du aurreko atala.

Ekintzako edozein momentutan, lasterketako zuzendariak dokumentazioa aurkeztea eska dezake, hauek egiaztatzeko. Artikulu hau ez betetzeak, BEREHALAKO DESKALIFIKAZIOA eragin dezake.

BARNE ARAUDIA

9.2. Taldeak, autoaren homologazio fitxa aurkeztu beharko du egiaztapen teknikoetan.

9.3. Suaren aurkako arropa, Hans eta kaskoaren egiaztapena Erlojupeko Ibilbidearen irteerako OKea (ordutegi kontrola) burutuko da. Segurtasun araudia ez betetzea, taldearen DESKALIFIKAZIOAREKIN zigortuko da.

9.4. Egiaztapen administratiboak Markina-Xemeinen soilik egingo dira.

9.5. Antolakuntzak esleituko du parte hartzen duen talde bakoitzaren egiaztapen teknikoko ordutegia.

9.6. Egiaztapen teknikoak parte-hartzaileak izena ematean aukeratutako ordutegiaren arabera izango dira. Ordutegia ez betetzeak 30€-ko isuna ekarriko du. Isunak jakinarazpena jaso eta hurrengo 48 orduetan ordaindu beharko dira, edozein ordainketa-modalitate erabiliz.

Isuna berandu ordaintzeak etenaldia ekar dezake, isuna ordaindu arte gutxienez. Ezarritako isunaren zenbatekoak honela ordaindu beharko dira:

- Proban zehar; kirol komisarioak
- Proba bukatutakoan, EAF-FV Ari transferentzi bidez.

EGIAZTAPENEN PROZEDURA PAUSOZ PAUSO:

1. Ibilgailua deskargatu Galartza industrialdean, Etxebarria.
2. Erremolkea dagokion eremuan aparkatu.
3. Rutometroan adierazitako ibilbidea jarraitu Opela okindegira, Markina-Xemeinen.
4. **Egiaztapen administratiboak egin OPELA OKINDEGIAN.**
5. Dorsalak, zenbakiak eta publizitatea jarri araudian adierazitako moduan.
6. Zuzen jarraitu.
7. **Egiaztapen teknikoak egin, UDAL ARRAINDEGI** parean.
8. Ibilgailua aparkatu Abesua kalean, Parke Itxian, antolakuntzaren jarraibideak jarraituz.



10. Artikulua ERREKONozIMENDUAK

10.1 Taldeek ibilbide neurtua errekonozitu ahal izango dute modu honetan:

EGUNA	DATA	IBILBIDEA	ORDUTEGIA
Larunbata	2026-06-27	A ibilbidea	09:00etatik 19:00etara
Igandea	2026-06-28	A ibilbidea	09:00etatik 14:00etara

Parte-hartzaileak nahitaez hautatu beharko du errekonozimenduak egiteko eguna izena ematerakoan. Gainera, dokumentu bidez identifikatuta egon beharko du, aurreko eta atzeko kristaletan pilotuaren lizentzi zenbakia adieraziz. 17.1.4. art. Rallyen Kirol Araudia.

Ibilbidearen gida formatu digitalean soilik lortu ahal izango da, Euskadiko Automobilismo Federazioko webgunean.

10.2. Derrigorrez bete beharrekoak izango dira:

- a) Erlojupeko ibilbidearen aurkako norantzan gidatzea debekatuta dago.
- b) Errekonozimenduetan zehar, talde parte hartzaileak zorrotz bete beharko ditu Trafikoak indarrean dituen arauak.
- c) Lasterketako autoarekin errekonozimenduak burutzea debekatuta dago.
- d) Errekonozimenduetan ibilitako autoak seriekoak izan beharko dira.
- e) Errekonozimenduetan gehienez ere 50km/orduko abiadura hartu ahalko da.
- f) **Ibilgailuaren identifikazioak Asfaltoko Rallyen Araudi Kirolaren 17.1.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.**

Araututako guztiaz gaiz, probaren Antolakuntza Komitea, bere osotasunean izango da egitatezko epaile.

10.3. 2026ko RallySprint Txapelketako arautegiaren 6. Artikulua ere derrigorrez bete beharko da.

10.4 GARRANTZITSUA: Mugatutako Igaroaldiak

Ibilbidean zehar antolakuntzako kideak aurkituko dira, mugatutako HIRU (3) IGAROALDIAK sinatzeko txartel batekin. Txartel hau egiaztapen administratiboetan itzuli beharko da.

ERREKONozIMENDUEI LOTUTAKO ARAUTEGIA EZ BETETZEA, 2026KO EUSKADIKO RALLYSPRINT TXAPELKETAKO ARAUTEGIAREN 6.3.2 ARTIKULUAREN ARABERA ZIGORTUA IZANGO DA.

11. Artikulua PARKE ITXIA

11.1. Rallysprintaren irteeraren aurretik, parte hartzaileak irteerako Parke Itxi batean elkartuak izango dira; hau, Markina- Xemeingo, abesua kalean izango da.

- Parte hartzaileek parke itxian sartu beharko dituzte beraien autoak egiaztapen teknikoak burutu ondoren.

11.2. Probaren amaieratik hasi eta Kirol Komisarioen Elkargoak irikitze irizpidea eman bitartean, autoak parke itxian egon beharko dira. Altzibar-Auzoa Etxetaldea kalean kokatua izango dena, Etxebarrian. Galartza Auzoa errepide nagusia eta bere perpendikularra den Erbera Kalea komunikatzen dituen eremuan.

12. Artikulua. ASISTENTZIA

12.1. Asistentzia gunea Etxebarriako, Galartza Poligonoan kokatuko da.

12.2. Debehatuta dago, asistentzia eremutik kanpo auto parte hartzaileari asistentzia ematea.

12.3 Derrigorrezkoa da asistentzia eremuan zoruko mihisea edo lona, eta su itzalgailuak erabiltzea, Rallyen Kirol Araudiko Art.21.1.6an zehazten den moduan.



13. Artikulua. GPS

13.1. GPSa parte-hartzaile guztiei emango zaie Egiatzapen Administratiboetan, eta Helmugako Parke Itxiko sarreran jasoko dira.

Proba uzten duen parte-hartzaileek transponderra itzuli beharko dute lasterketaren zuzendaritza-bulegoan.

13.2. Ezinbestekoa da antolatzaileek emandako transponderra parte hartzen duten ibilgailu guztietan jartzea, eta lehiakidea izango da transponderraren funtzionamendua eta kokapena uneoro mantentzearen arduraduna bakarra. Anomailaren bat detektatzen badu, berehala jakinarazi behar dio lasterketako zuzendaritzari.

13.3. Jarraipenerako GPS sistemak emandako informazio guztia (ematen denetik itzultzen den arte) kirol-komisarioek erabili ahal izango dute aurreikusitako zigorra ezartzeko.

13.4. Parte-hartzaileen betebeharra da GPSa behar bezala erabiltzea, barne araudi honen III. Eranskinean jasotako jarraibideen arabera.

14. Artikulua. SARIAK ETA GARAIKURRAK

14.1. Banatuko diren sari eta garaikurrak ondokoak izango dira:

Scratch Sariak:

1º.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra eta 350 €
150 €

2º.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra eta 200 €

3º.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra eta 100 €

eta 150 €

9-H Klase Sariak (Historikoak)

1º.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra eta 150€

H1 Historikoen Garaikurra

1º.-Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

Mailakako Sariak (1-6)

1º.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra eta

Formula Libre Saria (10. klasea)

1º.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

Euskal Pilotu Junior Saria

1º.- Pilotu garaikurra eta 150€

Euskal Kopilotu Junior Saria

1º.-Kopilotu garaikurra

14.2. Sari banaketa Etxebarriako Udaletxeko plazan burutuko da, uztailaren 4ean, 19:00tan.

Azkoitia, 2026ko maiatzaren 27a.

I.ERASKINA PARTE HARTZAILEEN SEGURTASUNA.

Parte hartuko duen ibilgailu bakoitzak bi triangelu gorri islatzaile eraman beharko ditu; erlojupeko ibilbidean zehar autoa geldituko balitz, gutxienez horietako bat kokatu beharko du taldeko kideetako batek, ikusteko erraza den modu batean, gutxienez autoa baino 50metro lehenago, atzetik datozen autoak abisatzeko helburuarekin. Arau hau ikusten ez duen taldeei, Kirol Komisarioek isun ekonomikoa ezarriko diete.



Laguntza medikua behar ez duten zauriturik eragin ez dituen istripuetan, erakutsi berehala eta argi kartel hau atzetik datozen 3 taldeei. Taldeak autoa uzten badu, ondorengoek erraz ikusteko moduan jarrita utzi beharko dute “OK” txartela.






Aldiz, laguntza medikoa berehala behar denean, “SOS” txartela erakutsi beharko da, posible balitz, bai atzetik datozen gutxienez 2 autoei eta baita, larrialdian parte hartu dezaken edozein autori ere.

Antolakuntzak talde bakoitzari Lasterketako Zuzendaritzako Larrialdietako telefonoarekin bi pegatina emango dizkio, lasterketan zehar horietako bat auto barruan eta bestea kanpoan, ikusteko moduko toki batean jarri beharko direlarik

Telefono zenbaki hori benetazko larrialdiak artatzeko izango da eta parte hartzaileek, posible den heinean, lasterketa utziko dutela abisatzeko, atentzio medikuaren beharrak eskatzeko, autoaren erreskatea kudeatzeko edota Lasterketako Zuzendariak beraien egoeraren berri izateko egin ditzake deiak jasotzeko erabiliko da.

II ERASKINA ERLOJUPEKO IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Irteera: GI-2636, 34-38
Helmuga: BI-2636, 35-33
EI luzera: 10,69 km




III ERASKINA GPSaren FUNTZIONAMENDUA



SOS JAKINARAZPENA:

Berehalako arreta medikuaren eskaeraren aurrean edo beste parte hartzailearen baten ibilgailuak errepidea guztiz oztopatzen badu.

Sakatu botoi gorria eta berdea aldi berean 2 segunduz.



MATXURA JAKINARAZPENA:

Ibilgailua matxuratuta dagoela eta lasterketan jarraitzea ezinezkoa duenean, baina errepidea guztiz oztopatzen ez duenean.




Sakatu botoi gorria 2 segunduz



DENA ONGI DAGOELAREN BAIEZTAPENA:

Lasterketaren zuzendaritzak parte-hartzaileen egoerari buruzko informazioa eskatzen badu, honakoa erantzun dezakete:

S.O.S / Matxura edo dena ondo dago

-  Dena ongi dagoela jakinarazteko
-  S.O.S deia jakinarazteko
-  Matxura jakinarazteko




BANDERA GORRIA/ RED FLAG

Pantailak RF testua (bandera gorria) erakusten du LED pantaila gorri osoarekin txandakatuz.

**IV. ERANSKINA
PROBAKO PLANOAK:**

EGIAZTAPENAK eta PARKE ITXIA (Markina-Xemein):



BUKAERAKO PARKE ITXIA eta SARI BANAKETA (Etxebarria):



V. ERANSKINA
IBILBIDEA- ORDUTEGIA

XVIII SAN MIGUEL RALLYSPRINTA

2026ko uztailaren 4a

IBILBIDEA- ORDUTEGIAK

OK Ordutegi Kontrola	Kokapena	EI Distantzia	Enlazearen Distantzia	Distantzia Guztira	Denbora	Km/ord	Lehen autoaren ordua
0	Markina-Xemein- Rallysprint Irteera (Parke itxia)						11:30
A.E. "A" (Galartza Industrialdea)					00:50		
0A	Etxebarria- Asistentzia eremutik irteera						12:20
1	Elgoibar- Irteera aurea		19,40	19,40	00:35	33,26	12:55
EI-1	San Miguel	10,69			00:05		13:00
1A	Etxebarria - Elkartze sarrera			10,69			
1B	Etxebarria - Elkartze irteera				00:20		13:35
A.E. "B" (Galartza Industrialdea)					00:45		
1C	Etxebarria- Asistentzia eremutik irteera						14:20
2	Elgoibar- Irteera aurea		19,40	19,40	00:35	33,26	14:55
EI-2	San Miguel	10,69			00:05		15:00
2A	Etxebarria - Elkartze sarrera			10,69			
2B	Etxebarria - Elkartze irteera				00:20		15:35
A.E. "C" (Galartza Industrialdea)					00:45		
2C	Etxebarria- Asistentzia eremutik irteera						16:20
3	Elgoibar- Irteera aurea		19,40	19,40	00:35	33,26	16:55
EI-3	San Miguel	10,69			00:05		17:00
3A	Etxebarria - Rallysprint amaiera			10,69			17:15
		EI Kopurua	EI	Guztira	EI %		Denbora
RALLYSPRINTA GUZTIRA		3	32,07	90,27	35,53		05:45

BARNE ARAUDIA